



KARATEKO

2025ko ARAUTEGIA

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XLI. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Karate Federazioarekin lankidetzan, 2025ko maiatzaren 25an, Gasteizko Arriaga kiroldegian (Araba). Hauxe duzue jokoen araudia:

1) MODALITATEAK

a) Probak

- Mutilen eta nesken banakako kata
- Mutilen eta nesken banakako Para-karate kata
- Mutilen eta nesken infantil mailako kumite

b) Txapelketa eremuaren neurriak

Lehiaketa-eremuak gutxienez 8x8 metroko neurriak izango du, eta perimetro osoan metro 1 gehiago, segurtasun-eremu gisa, eta egiten den proba-motara egokitu ahal izango da.

2) PARTAIDETZA

Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu

Infantil mailan 2011-2012an jaiotako neska mutilak.

- Banakako Kata: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko.
- Banakako Kata Para-Karate: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko.
- Banakako Kumite: 4 lehiakide lurralde-federazio, maila eta pisu bakoitzeko.

Alebin mailan 2013-2014an jaiotako neska mutilak.

- Banakako Kata: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko.
- Banakako Kata Para-Karate: 6 lehiakide lurralde-federazio eta kategoria bakoitzeko.



3) PISUAK

Infantil mutilen banakako Kumite:

- 36 kg	- 54 kg
- 42 kg	- 60 kg
- 48 kg	+ 60 kg

Infantil nesken banakako Kumite:

- 37 kg	- 52 kg
- 42 kg	+ 52 kg
- 47 kg	

Pisuren batean bi partaide edo gutxiago izan ezkerro, pisu hori zelan osatzen den batzorde teknikoak erabakiko du, azkeneko pisu kategorian aldiz aurreko pisan hartzeko aukera izango du, guztien parte hartzea ahalbideratze aldera.

4) ARBITRAJEA

EKF/FVKren araudia kontuan izango da berezitasun hauek kontuan izanda:

4.1. KATA modalidadean

4.1.1. Para-Karate.

- a. Ez da gradu minimorik eskatuko
- b. Honako hauek aitortzen dira:
 - a. Desgaitasun intelektuala.
 - b. Ikusmen-desgaitasuna.
 - c. Gurrpil-aulkia.
 - d. Zutik.
- c. Lehiaketaren formatua Zuzendaritza Teknikoak erabakiko du, parte-hartzearen arabera.



4.1.2 Alebin eta Infantil mailak.

1. itzulia	Alebin	Infantil
	Laranjatik marroira arte	Laranjatik beltzara arte
	Oinarrizkoa (ezin da errepikatu)	Oinarrizkoa (ezin da errepikatu)
	Oinarrizkoa (ezin da egindako azkena errepikatu)	Inf-Jub. zerrenda (ezin da egindako azkena errepikatu)
2. eta ondorengo itzuliak	Inf-Jub. zerrenda (ezin da egindako azkena errepikatu)	Inf-Jub. zerrenda (ezin da egindako azkena errepikatu)
Dominetarako lehia		

4.2 KUMITE modalidadea

2 minutuko denbora.

Puntuaketa: mugarik gabe, 6 puntuko tarteak.

Penalizazioa: gehiengo zorrotasuna.

Babesak: Infantilekoak derrigorrezkoak, homologatuak, honako hauek izango direlarik:

“Guantillas” gorri edo urdinak
“Espinillera” gorri edo urdinak
Kanpoko petoa
Kokilla (mutilak)
Ahorako babesa (aukeran)

Bururako babesa (kaskoa)
Neskendako bularrerako babesa
Besaurrerako babesa

5) PISAKETA ETA KONTROLA

Lehiaketaren egun berean pisatuko dira lehiakideak, txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago.

Partaideren batek une horretan pisu egokirik ez badu, automatikoki jokotik kanpo geldituko da, ezingo du ordezkorik ekarri, ez eta beste pisu-kategoria batean sartu ere.

Partaideak pisaketa unean dagokien Foru Aldundiko eskola kiroleko txartela aurkeztu beharko dute.

6) ARDURADUNAK

Lurralde bakoitzeko federazioak ordezkari bat izendatuko du izen ematerako eta Zuzendaritza teknikoarekin harremanetarako, edozein azalpenerako eta baita bere lurraldeetako partaidere ere. Coach edo entrenatzaileak lehiaketa eremuan txandalez egon beharko dira, kaleko arropa galarazita egonik.



7) IZEN EMATEA

Parte hartzeko eskariak Euskadiko Karate Federazioaren egoitzara helarazi behar dira 2025ko maiatzaren 20rako, asteartea 12:00ak baino lehen, orri ofiziala modu egokian beteta.

Dagokion Lurralde Federazioaren ardura izango da berak aurkeztutako partaideek jokorako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea.

8) KIROL SARIAK

Honako sari hauek banatuko dira: dominak kategoria eta pisu guztietako lehen, bigarren eta hirugarren sailkatuentzat.

9) EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

10) AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioako lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f. Espainiako Karatearen Lagunen Federazioaren Araudiari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeror, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.



EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



ERANSKINA

ZERREDA INFANTIL-JUBENIL	
OINARRIZKO KATAK	GOI-MAILAKO KATAK
13 Fukio Kata Ichi	3 Ananko
14 Fukio Kata Ni	6 Bassai Dai
17 Gekisai-Dai Ichi	12 Enpi
18 Gekisai-Dai Ni	38 Jyu-Roku
103 Gekisai-Dai San	35 Jiin
104 Geki-Ha	36 Jion
25 Heian Shodan	105 Jin-I
26 Heian Nidan	40 Kanku-Dai
27 Heian Sandan	41 Kanku-Sho
28 Heian Yondan	45 Kosokun-Dai
29 Heian Godan	46 Kosokun-Sho
70 Pinan Shodan	47 Kururunfa
71 Pinan Nidan	48 Kushanku
72 Pinan Sandan	51 Matsukaze
73 Pinan Yondan	56 Nainfanchin-Shodan
74 Pinan Godan	60 Nijushiho
107 Taikyokus	61 Nipaipo
	62 Niseishi
	69 Passai
	75 Rohai
	76 Saifa
	80 Sanseru
	82 Seienchin
	83 Sepai
	93 Tekki-Shodan
	106 Tomari no Wansu
	101 Wankan